

ETORKIZUNA *eskuera*



Haur hezkuntza, Batxilergoa
eta Lanbide Heziketa

GEHIGARRI BEREZIA

Hezkuntza Aiarraldean

Martxoaren 25erako deitua zuten eta CCOO sindikatuek, Eusko hezkuntza greba bertan behera Legebiltzarrean Hezkuntza Lege utzi dute ELA, LAB, Steilas berriaren akordioa sinatu ostean.

Sindikatuak bertan behera utzi dute hezkuntza greba

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Hezkuntza "publiko, esukaldun eta propioaren" aldeko greba zuten deituta ELA, LAB, Steilas eta CCOO sindikatuek. Hezkuntza sistema osoan ziren greba egitekoak, itunpeko ikastetxeetan zein sare publikoan. Eusko Legebiltzarrean adosten ari zen hezkuntza lege berriaren eztabida zuen abiapuntu ostiraleko lanuzteak. Sindikatu deitzaileak ez zeuden ados aurkeztutako testu zirriborroarekin, ezta eztabaida

emateko prozesuarekin ere ez, hezkuntza eragileak aintzat hartzen ez zituelako. Iragan ostegunean, ordea, akordioa sinatu zuten Gasteizko Legebiltzarrean EAJk, EH Bilduk, PSE_EEk eta Elkarrekin Podemos IUk, hezkuntza itunarengainean aurkeztutako ehun zuzenketa baino gehiago luze eztabaidatu ostean. ELA, LAB, Steilas eta CCOO sindikatuek martxoaren 17an sinatutako akordioa aztertu ostean erabaki dute greba bertan behera uztea.

Itun berria

Ordu luze eztabaida izan

zuten ostegunean -martxoak 17- Gasteizko Legebiltzarrean. Hezkuntza Lege berriaren oinarria itxi zuten bertan EAJk, EH Bilduk, PSE_EEk eta Elkarrekin Podemos IUk, alde bateko zein bezteko zuzenketa eztabaidatu ostean.

Lege berriak zehazten duen hezkuntza ereduak eragin zuen eztabaidako korpailorik handiena. Zehaztutako azken testuak jasotzen duenaren arabera DBH ikasketak bukatzerakoan ikasleek euskarazko B2 maila izan beharko dute, eta B1 maila lehen hezkuntza amaitzerakoan.



ANA PEREZ

STEILAS SINDIKATUKO KIDEA

“Hobe delako prebenitzea sendatzea baino”

Eusko Jaurlaritzaren helburua azken hiru legealdietan, EAJ burua izanik, indarrean dagoen Euskal Eskola Publikoaren Legea (1993) ordezkatzeko duen Hezkuntza Lege berria burutzea da. Cristina Uriarterekin lortu ez bazuen ere badirudi Jokin Bildarratz eta bere bidelagun berriekin lortuko duela. Tituluan Eskola Publikoa, guretzat zentrala dena, desagertu izanak kezka sortzen digu lege berri horretan sare pribatu-itundua sare publikoarekin parekatu nahi baitute.

Zerbitzu publikoen alde egiten dugunok, oro har, eta kasu honetan Hezkuntza Publikoaren alde egiten dugunok, urteak daramatzagu hezkuntza-sistema dual anomalo honek, ikasleen % 51 sare publikoan eta % 49 pribatu-itunpekoan, dakartzan segregazioa eta desberdintasunak salatzen.

Hezkuntza Publikoan sinesten dugunok eta horren alde eta lan egiten dugunok, ikasle guztien aukera-berdintasuna eta gizarte-kohesio handiagoa bermatzen duen bakarra delako, uste dugu une aproposa izan behar dela hezkuntza publikoa zentraltasunean jarriko duen eta horrek jasaten dituen bereizketa- eta abandonu-egoerak zuzenduko dituen hezkuntza-ituna lortzeko. Horrela bakarrik eraiki ahal izango dugu berdintasuneko gizarte bat eskubideetan eta aukeretan, aniztasuna elementu aberasgarri eta ez segregatzaile gisa biziko duena.

Horregatik guztiagatik, hezkuntza-, gizarte- eta sindikatu-eragileok dozenaka ekarpen egin dizkiogu etorkizuneko hezkuntza-akordioaren lehen zirriborroari, eta argi utzi nahi dugu sistema publikoan oinarrituko ez den Hezkuntza Lege bat, eta Hezkuntza Publikoak dituen egiturazko arazoei, batez ere bereizketari aurre egiteko behar diren proposamen eta baliabide zehatzak mahai gainean jarriko ez dituen Legea ez dugula babestuko. Horren guztiaren aurrean orain arte entzun eta irakurri duguna ez digu inolako garrantiarik ematen iritzia alda dezagun.

Euskerak izango duen trataera ere mahai gainean egon da baina konpreziorekin ez. Gogoratu beharko diegu indarrean dagoen legeak zera jasotzen duela: derrigorrezko hezkuntza amaitzean ikasleek bi hezkuntza ofizialekin gaitasun nahikoa izango dutela, eta argi geratu da Hezkuntza ereduak ez dutela hori bermatu eta murgiltze eredurak jo beharko lukela lege berriak, horrela proposatu dugu hezkuntza eragile gehienok, baina ezagutzen dugunagatik aldaketa hori ez da planteatzen, beraz Lege berriak zer nolako zentraltasuna emango dio euskarari?

Beste proposamen ezberdinak luzatu dizkiegu ere: Pribatuaren itunpeko unibertsitatearekin bukatzea, Jantoki, garbiketa, garraio,... zerbitzuen pribatizazioarekin amaitzea, 0-2 urteko zikloa Hezkuntza Sailean integratzea eta unibertsala eta doakoa izatea, eta euskal curriculum, hezkidetzak, laikotasuna, ekitatea, pentsamendu kritikoa eta parte-hartzea ezartzea.

Alderdien azken akordioan Hezkuntza publikoarekiko konpromisorik ez dugunez, STEILAS greba eta mobilizazioak deituko hamaika arrazoi daudela sinestuta gaude, “prebenitzea” beti baita sendatzea baino hobea, baina azken orduetan zegoen batasun sindikala apurtu egin da eta momentuz lau sindikatuok deitzen genuen greba, triste bada ere, bertan behera geratu da. Aukera historikoa galdu egin dugu honetan baina hezkuntza lege honi oraindik bide luzea geratzen zaio.

Euskal Eskola publikoa denona eta denontzat delako defenda dezagun!

Etxaurren Haurreskola

Haurrei euren mugimendu propioak garatzen uzten dien haurreskola

Aiarako Ibaguen auzoan (Zuhatzan) kokatua dago Etxaurren haurreskola, txikia eta familiarra da. Bi gela ditu eta bere hezkuntza proiektu propioa du. Haurrek mugimendu librearen bitartez, beraien garapen naturala sustatzea eta errespetatzea dute helburu hezitzaileak.

Modu horretan, helduek “bidelagun” funtzioa hartzen dute heziketa prozesuan zehar, haurrei euren kabuz egin dezaketena egiten utziz, behar den denbora emanez... “Haurraren erritmoa eta ezetza” errespetatzen dituzte horrela, “haurrak bere mugimendua gorputzean bizitakoa

eta esperimintatutakoa barneratuko du”, azaldu dute Etxaurren Haurreskolako hezitzaileek. Apirilaren 11tik maiatzaren 9ra luzatuko da haurreskolan matrikulatzeko epea. Horrez gain, informazio gehiago nahi izanez gero: haurreskolak.eus webgunera sartu edo 945399727 telefono zenbakira deitu.



www.haurreskolak.eus
945 39 97 27

ETXAURREN HAURRESKOLA

Matrikulazio epea zabalik
apirilaren 11tik maiatzaren 9ra



Ibaguen auzoa 1, ZUHATZA

Hezkuntza Aiarraldean

Kokoriko Hezkuntza Faktoriak hilabetean birritan zortzen du 0-3 espazioa Faktorian. Espazio dinamikoa da, bertan parte hartzen duten haur eta familien beharrei egokitua, eta profesional batek zaindua. “Maitasunean oinarritutako kalitatezko denbora” bezala definitu dute bertan garatzen duten jarduerak.

“0-3 urte bitarteko haurrentzako espazio eroso eta seguru bat sortzen dugu Faktorian”

Zer eskaintzen duzue Faktorian adin tarte horretarako?

Profesional batzuk zaindutako, 0-3 urte bitarteko haurrentzako espazio eroso eta seguru bat sortzen dugu, adin honetan dauden garapena kontuan hartuz. Kalitatezko zaintzan oinarritzen gara espazioa diseinatzerako unean. Haurren beharretara doitzen den espazio anitza da. Batzuk etzanda daude, beste batzuk esertzeko gaitasuna bereganatu dute,

beste batzuk katuka edo narrastaka ibiltzekoa...

Zergatik 0-3 urte bitarteko haurrentzako?

Haurrentzako eta beraiei zaintzaz arduratzen diren helduentzako garaiberezia dajaioberritik hiru urte bete arte. Haurraren nortasuna eraikitzen dagoen bitartean heldua haur hori ezagutzen dago. Adin tarte honetan mugimenduaren autonomia bereganatzen hasten dira. Prosezu hau Emi Piklerrek oso ondo dokumentatu zuen eta guk

sortzen dugun espazioa mugimendu librean eta zaintzan oinarritzen da.

Helduek zein papel betetzen dute espazioan?

Heldua portu segurua da gerora jolasera animatzeko. Heldua bertan egonda haurra seguru sentitzen da beldurrik gabe, lotura seguru hori egitea ezinbestekoa da gerora haurra jolas librea garatzeko. Gainera helduek, bi helburu betetzen dituztela esango nuke, alde batetik egoera

berdinean dauden beste heldu batzuekin sozializatze aukera ematen die eta bestetik beraiei haurrentzako

mimoz prestatutako espazio baten lasaiegoteko aukera. Gainera haurraren garapena behatzeko aukera ematen die.



Tipi-Tapa

Errespetua
Mugimendu librea
Jarduera autonomia
Denbora
Presentzia
Emozioak
Konfiantza
Segurtasuna
Kalitatezko zaintzak



Zer eskaintzen dugu?

Neurrirako harrera garaia eta banakako arreta, kalitatezko zaintzak, mugimendu askea eta jolas librea eskaintzen ditu Tipi-Tapa haur eskolan

TIPI TAPA

HAURRESKOLA AMURRIO



Arenalde kalea, 5 AMURRIO
945 89 32 59

HAURRA ETA FAMILIA

Zer eskaintzen dugu?

- 0-2 urte
- Orduetgia: 7:30 – 17:00
- Kalitatezko zaintzak
- Mugimendu askea
- Jolas librea
- Material eta espazio egokiak

Matrikulazio epea:

Apirilaren 11tik maiatzaren 9ra

ATE Irekiak

Apirilaren 5ean
17:00etatik
19:00ak arte



hitz zentroa

Karmen kalea 39,
01400 LAUDIO
Tel.: 94 672 63 91 / 656 74 27 22

Arabako Foru Aldundiak BAIMENDUTAKO haurren garapeneko eta ARRETA GOIZTIARRA lantzeko zentroa:

- Hurbileko zerbitzua
- Subentzionatuta
- Zerbitzu globala:
 - logopedia
 - fisioterapia pediatrikoa
 - psikologia

PROFESIONAL EUSKALDUNAK ZURE ZERBITZURA

Laudio Ikastola

“Haurrek Ikastolan bizitakoa familiei transmititzea lortu dugu txantxangorrien dinamikari esker”

Dinamika berezia garatu dute Laudio Ikastolako urte bateko haurren geletan, familiek ere bertan bizitako esperientzien berri izan dezaten: Txantxangorriak eraman dituzte etxera, gelan landutako kontuei segida emateko. Aurrerantzean dinamika garatzen jarraituko dute.

Dinamika berri eta originala jarri dute abian Laudio Ikastolako 0-3 urte Zikloko Katuka geletan, Laudio Txikiren eta familien arteko harremana estutzeko. Kutxa misteriozuetan gordeta txantxangorriak eraman dituzte urte bateko haurrek etxera.

Izaskun Burdain Haur Hezkuntzako lehen zikloko kordinatzaileak azaldu ditu dinamikaren nondik norakoak: "Neguko murala osatu genuen Katuka gelan, baina ez zuen haurren interesa bereziki piztu. Orduan pentsatu genuen elementu berriren bat sartu behar genuela eta txantxangorriak txertatzea okurritu zitzaigun". Arrakasta erabatekoa izan zen. Hurrengo asteetan muralarekin egindako dinamikan txantxangorria elementu nagusia izan zen.

"Hainbestekoa izan zen

arrakasta, familiekin partekatu nahi izan genuela" azaldu du Izaskunek.

Horretarako hamar txantxangorri kutxatxo batzuetan gorde eta txandaka etxera eraman dituzte haurrek. "Haurrek hasieran ez zekiten zer zegoen kutxen barruan, etxera sorpresa bat zeramatela bakarrik". Kutxak etxean familiarekin zabaltzeko eta txantxangorriekin egin zuten topo Katuka gelako haurrek: "Familiei Ikastolan bizitakoa transmititzeaz helburua". Etxe bakoitzean modu desberdinean jolastu duten txantxangorriarekin, baina haurrek Laudio Ikastolan esperimentatutakoaren itzulpen zuzena izan da kasu guztietan.

"Adin hauetan oso zaila da haurrek familiei transmititzea Ikastolan zer egin duten. Modu

honetan, hemen hain gustura bizi duten elementu bat etxera eraman eta bizitakoaren berri eman ahal izan diete senideei; familia eta Ikastolaren arteko zubiak sendotuz" azaldu du Burdainek: "Oso esperientzia polita izan da umeek asko disfrutatu dute, familiek baita ere, eta guk are gehiago".

Familiei etxean bizitako esperientziaren argazkiak elkarbanatzeko eskatu zieten Ikastolatik, eta bildutako argazki guztiekin erakusketa bat atondu dute.

Dagoeneko hasi dira dinamika berriak prestatzen. Neguko murala udaberriko muralarengatik ordezkatzeko dute aurki, eta bertan ere etxera eramateko elementuren bat prestatuko dute hain dinamika arrakastatsuari segida emateko.



IKASTOLAN MATRIKULA ZABALIK

2021ean eta 2022an jaiotakoentzat

HITZORDUA ESKATU

94 672 67 37

matrikula@laudioikastola.eus

LAUDIO
ikastola
50 urte



Hezkuntza Aiarraldean



**La Milagrosa
Ikastetxea
Laudio**

WWW.LAMILAGROSALAUDIO.EUS

100+

ehun urte bihotzetan
LA MILAGROSA IKASTETXEA

INFORMA ZAITEZ ETA ETORRI GU EZAGUTZERA!



**MATRIKULA
ZABALIK**

94 672 07 01

@ zuzendaritza@lamilagrosalaudio.eus

WWW.LAMILAGROSALAUDIO.EUS

AMAUURREN ETXEAN BEZALA
"LEHENENGO URRATSAK, HOBETO ELKARREKIN"




www.amaurre.eus
info@amaurre.eus
Tfno. 945 393 544

AMAUURRE
Txiki
• BIDAIDE FUNDATZIOA •

AMAUURRE IKASTETXEA
Dionisio Aldama, 16
01470 Amurrio
Araba

Hezkuntza Aiaraldean

Laudioko gazteek zientzia eta teknologia arloekiko duten interesa eta pertzepzioa neurtu ditu Elhuyarrek Laudio STEAM diagnosian. Diagnosiaren egitasmoa probestu zuten herriko gazteen zientzia eta teknologiarekiko interesa handitzeko egitasmo berria aurkezteko: Laudio Bizilabe zentroa. Datorren ikasturtean abiatuko dute ekimena.

Elhuyarrek gazteekin egindako STEAM diagnostikoaren ondorioak aurkeztu ditu

Testua

Aimar Gutierrez Bidarte

Laudioko gazteek zientzia eta teknologia arloekiko duten interesa eta pertzepzioa neurtu ditu Elhuyarrek 'Laudio STEAM diagnosian'.

Guztira, La Milagrosa, Laudio BHI eta Laudio Ikastolako 14 eta 16 urte bitarteko 179 gaztek hartu dute parte diagnosian. STEAM lanbideekiko pertzepzioa neurtzea, genero ikuspegia txertatzea eta STEAM alorreko gazteen interes maila baloratzea ziren azterketaren helburuak.

Genero estereotipoak

Genero estereotipo tradizionalak gazteen interesetan duen eragina ikertu du Elhuyarrek garatutako diagnosiak. Oro har, neskek mutilek baino urrunago ikusten dute euren burua STEAM arloko ogibideetatik. Ikasketei dagokionez, neskek irakaskuntza, hizkuntzak edota osasun arloarekin erlazioan tutako ibilbideak hautatzen dituzte nagusiki. Mutilek, ordea, ingeniariartzak eta zientzia eta teknologiarekin lotutako ikasketak dituzte lehentasun.

Genero arrakalagatik galdetuta, pertzepzioa ere oso bestelakoa da alde batean zein bestean. Nesken %50ak uste du generodesberdintasunadagoela zientzia eta teknologiarekin erlazioan tutako lanbideetan. Kontrara, mutilen %20ak bakarrik du ikuskera hori. Elhuyarrek adierazi du ere, pertzepzio hau hobetu egiten dela eskualdeko STEAM arloko lan baldintzengatik galdetzerako orduan.

Gazteen pertzepzioa

STEM profesionalak "pertsona langileak, jakintsuak, argiak eta

pazientzia handikoak" direla uste dute gazteek, diagnostikoan arabera. Gazteek ikasketa prozesu luze eta zorrotzarekin lotzen dituzte zientzia eta teknologiak. Elhuyarrek egindako ikerketaren arabera, eta horrek areagotu egiten du ikasleek bestelako ikasketak hautatzeko aukera.

Pertzepzio horrek eragin zuzena du gazteek STEAM arloan lan egiteari dagokionean duten gaitasun-maila baloratzeko orduan.

Neskek eta mutilek ez diote euren buruei gaitasun-maila bera aitortzen; mutilen % 49,4k eta nesken % 34,3k ikusten dute beren

burua sektore horretan lanean. Beste aldagaitzat ere mahigaineratu du diagnosiak: gazteen %30 ez dute eskualdeko industria ezagutzen, eta eskualdeko industrian lan egitea ez dute bereziki erakartzen. "Halere, badira eskualdeko industria eta lana gauza positiboekin lotzen dituzten gazte batzuk, neskek zein mutilek", nabarmendu du ikerketak.

Bildutako iritzi guztiak aintzat hartuta, Elhuyarren ikerketak ondorioztatu du STEM jardueraren inguruko ezagutza baxua dela eta neskek mutilek baino bokazio zientifiko-teknologiko baxuagoa dutela.

MATXINTXU HAURRESKOLA



Zuk jolasa ikusten duzu.
Guk bere garapenean ere laguntzen dugu.

MATRIKULA EPEA ZABALIK

APIRILAREN 11TIK MAIATZAREN 9RA

Informazio gehiago behar izanez gero,
haurreskolara etor zaitezke edo telefonoz deitu:

944 049 543

Ardantzazar, 5

laudio.laudio@haurreskolak.eus

Matrikulazio epea zabalik Aiaraldeko ikastetxeetan



Testua

Aimar Gutierrez Bidarte

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak datorren martxoaren 28an zabalduko du Batxilergoan, matrikulatzeko epea, apirilaren 8ra arte zabalik egongo dena. Ikastetxe publiko zein pribatuetan matrikulazio epea berdina da. Aurreko urtetan bezala bi bide egongo dira matrikula aurrez aurreko matrikulazioa edo internet bidezkoa. Bigarrenetik jotzen duten ikasleek Hezkuntza Sailaren web orrian aurkituko dute hori egiteko bidea. Behin matrikulazio epea amaituta, maiatzaren 4an

aurkeztuko dira behin-behineko zerrendak, maiatzaren 18a baino lehenago aurkeztu ahalko dira erreklamazioak. Behin betiko zerrendak maiatzaren 25ean egingo dituzte publiko. Behin hori eginda, ohiko matrikulazioa abiatuko du Hezkuntza Sailak. Aurtengoan ekainaren 20tik uztailaren 5era luzatuko da, biak barne.

Lanbide heziketako zentroetan matrikulatzeko epean maiatzan abiatuko dute.

Ohikoan bezala hezkuntza eskaintza zabala aurkituko dute ikasle eta familiekin Aiaraldean, zentro publiko zein itunpekoetan.

Laudio Institutua

“Dударik gabe, ezinbesteko oinarriak izan dira Laudio Institutuan jasotakoak; gauza asko erraztu dizkidate unibertsitatean”

BESAIDE ASTOBIZA (OROZKO, 2000) PSIKOLOGIAKO IKASLEA ETA ATLETA DA; NEREA APODACA (LAUDIO, 1992), ALDIZ, ARTE IKERKUNTZA ETA SORKUNTZA DOKTOREGO TESIA EGITEN ARI DA, ETA HAINBAT SORKUNTZA PROIEKTUTAN DAGO MURGILDUTA. LAUDIO INSTITUTUKO IKASLEAK DIRA BIAK, ETA BERTAN BIZITAKO ESPERIENTZIAREN INGURUAN MINTZATU DIRA.

Zerikasi duzue eta zergatik aukeratu zenuten arlo hori?

Nerea Apodaka: Arte Ederrak ikasi nuen Artea nere pasioa zelako, baita mundua ulertzeko modua ere.

Besaide Astobiza: Batxilergoa bukatzerakoan psikologia ikastea erabaki nuen. Egia esanda, ez daukat oso argi zergatik erabaki nuen bide honetatik jotzea, beharbada bizitzako egoera desberdinek bideratu ninduten arlo honetara, hala ere, erabaki egokia hartu nuelakoan nago.

Institutuko garaitik, zein da gehien baloratzen duzuen bizi izandako esperientziarik?

N.A.: Irakasleekin eta ikasketak kideekin partekatutako esperientziak: momentuak, barreak, ikaskuntzak, sailtasunak, denborapasak, elkarriketak, ideien eta kezken trukeak, hainbeste oroitzapenak azkenean.

B.A.: Zalantzarik gabe gela kideen artean izan genuen harremana, batez ere bigarren batxilergoan taldetxobatsortu genuen, urte horrek duen presioa jasatzeko babes izan zena.

Gelakideekin batera, hainbat irakasleek ere bidean aurrera egiten lagundu ziguten ahal den neurrian egoerari garrantzia kendu.

Ikasketahoriek oinarriego-kiak izan dira unibertsitateko ikasketak aurrera eramateko?

B.A.: Nire kasuan, psikologiako graduak lehen urtea oso orokorra denez batxilergoan sortutako oinarria oso lagungarria egin zitzaidan, biologiako oinarria, esate baterako.

Hala ere, uste dut, hezkuntza sisteman hainbat aldaketa eman beharko liratezkeela ikasketak prozesuan gaitasun ezberdinak lantzeko eta logika analitiko batetik haratago ikasteko metodoak landu ahal izateko.

N.A.: Dударik gabe ezinbesteko onairriak izan dira. Denbora asko aurreztu didate unibertsitatean, baita erraztu ere.

Alde handia sumatu zenuen institututik fakultatera?

B.A.: Ezetz esango nuke, baina uste dut hori pertsona batek bestera zein ikasketak batzuetatik beste batzuetara oso aldakorra izan daitekeela. Nire

kasuan gurasoak txikitatik arduratu izan dira ahal den neurrian autodidakta izan nadin eta uste dut horrek erreztasunak eman dizkidala ikasketen arloan.

Zeintzuk dira zuen asmoak lan munduari begira?

B.A.: Momentuz masterren bat egitea falta zait, eta orain bai ez daukadala oso argi norantza jo nahi dudana. Baina argi daukat etorkizun baten psikologa modura lan egin nahi dudala, horretarako ikasketen bait nabil, nahiz ta egun arlo horren lana aurkitzea oso gatz dagoen.

N.A.: Ez, jarraian hasi nituen nere ikasketak unibertsitatean.

Zein aholku emango zeniekete Batxilergoa ikasten daudenei?

N.A.: Aukera dezatela haien gustuetara hurbilen ikasgaiak (derrigorrezkoak nola hautaketa irakasgaiak) eta batxilergo mota.

Ez imitatu, ez hartu alde aurretik bide erraza dirudiena, norberen gustuetan eta gaitasunetan konfiantza eu-



Besaide Astobiza
Psikologia ikaslea



Nerea Apodaka
Arte eta sorkuntza doktoregaia

“Bizitzako arlo ezberdinen oreka mantentzea ezinbestekoa da”

kitea beraien benetazko pertsonalitate berezi bitxia pixkanaka pixkanaka garatzeko.

B.A.: Akatsak egitea naturala eta ohikoa dela, balitekeela lehengoan zer ikasi nahi duten horretan ez asmatzea, goi mailako graduak zein unibertsitateko graduak idealizatuta izan ohi ditugu-

“Ez imitatu, ez hartu alde aurretik bide erraza dirudiena”

la eta normala dela hasiera batean ikasten gabiltzana gustoko ez izatea. Bestalde, esan nahiko nien batxilergoa presiodun urteak badira ere ezin dutela ahaztu ikasketetatik kanpo norbera ere badela eta bizitzako arlo ezberdinen oreka mantentzea ezinbestekoa dela.

LAUDIO INSTITUTUA

HELMUGA
EUSKARRI,
IBILBIDEA
HELBURU

2022-2023 AURREMATRIKULA EPEA
MARTXOAREN 28TIK APIRILAREN 8RA ARTE (ONLINE EDO PRESENTZIALA)

BATXILERGOAK

- Zientzia eta Teknologia
- Giza eta gizarte zientziak
- Arte plastikoak

ERDI MAILAKO ZIKLOA: Estetika eta edergintza
ONARRIZKO LANBIDE HEZIKETA: Ileapainketa



PROIEKTU ANITZ:
Hezkidetza,
Erasmus +,
Agenda 2030,
Sare Hezkuntza



Zaraobe

Amurriotik Mazametera bidaiatuko dute Zaraobe BHIko ikasleek



Hurrengo apirilaren 4tik 8ra Zaraobe BHIIn frantsesa ikasten duten ikasle batzuk Frantziara joango dira ERASMUS+ proiektuari esker. Bost egun emango dituzte Mazamet herrian, Okzitania dagoena, eta Toulouse eta Carcassonne inguruetatik ere ibiliko dira. 14 ikasle eta bi irakasle dira proiektu honetan lan egiten egon direnak.

Helburua da bidaiak hau aprobetxatzea eta Frantziako ikasleekin gai hauek lantzea: ingurumena, inklusibitatea, demokrazia eta teknologia berriak.

Proiektua kurtsoaren hasieratik martxan jarri dute eta hilabetero hemengo eta hango ikasleek elkarrekin lan egin dute eTwinning plataforman erabilia. Egindako lanen artean, bideoak grabatu dituzte eta emailak elkarri bidali dizkiote.

Urte honetan Zaraobe institutuko ikasleek aukera izango dute Mazametera joateko Europar Batasuneko ERASMUS+ proiektuaren dirulaguntza jaso dutelako, baina datorren kurtsoari begira Frantziako

ikasleek ere Amurriora etortzeko aukera izango dute, elkartrukea bi herrien artean egiteko.

Erasmus lanbide heziketan

Urtero bezala aurten ere ikasle batzuk joan dira lanbide heziketako enpresako praktikak egitera atzerrira. Hala ere, kostatu da gehiago bazkideak aurkitzea, pandemiak sortutako beldurren ondorioz ziur aski. Nola edo hala, Zaraobeko bi ikasle Bulgarian daude, bat Portugalen eta beste bat Maltan.



Lanbide heziketako aurrematrikulazioa: aurten maiatzean

Oraindik data ofizialen zain gaudela, lanbide heziketarako aurrematrikulatzeko epea maiatzaren erdialdera izatea espero da. Zaraobek pasa den urteko eskaintza mantenduko du lanbide heziketarako, zurgintza (Oinarritzko Lanbide Heziketa),

mantenu elektromekanikoa, mekanizazioa eta menpekotasun egoeran dauden ikasleei laguntza (erdi mailakoak), mekatronika industriala eta gizarteratzea (goi mailakoak). Azken hau lehen aldiz eskaini da aurten, arrakasta handia lortu duela.

Aiaraldeko gazteek batxiler modalitate berria egiteko aukera izango dute Zaraoben



Aiaraldeko ikasleen aukera berriak sortzea da Zaraobe Institutuaren helburua. Bide horretan, Gizarteratze Goi-Mailako Zikloa eskaini dute aurten estreinekoz, eta arrakasta erabatekoa izan da. 2022-2023 ikasturtean, aldiz, Batxilergo Orokorren aldeko apustua egingo dute ere.

Batzilergo Orokorra etapa amaitzean zer bide hartuko duten erabaki ez duten ikasleentzat pentsatuta dago, edo unibertsitateko edo Lanbide Heziketako titulazioak aukeratzeko asmoa dutenentzat, letraketa zientziak uztartzen dituen oinarri batetik abiatuta, hala nola haur-irakaskuntza eta kazetaritza.

Batziler orokorraren egitura

Irakasgai asko komunak dira beste batxilergoekin (ingelese, euskara, gaztelania, filosofia) eta hautazko batzuk ere komunak izango dira, baina batxiler honek ikasgai propio batzuk eskaintzen ditu: Matematika orokorrak eta Ekonomia, Ekintzailtza eta Enpresa Jarduera lehenengo mailan; Zientzia Orokorrak eta Kultura eta arte-mugimenduak bigarren mailan.

Matematika orokorra problemak ebazte eta informazioa aztertzea bideratuta dago, eta arreta berezia eskaintzen die testuinguru ez-matematikoei, beste ikasgai batzuekin eta errealitatearekin duten harremanarietarako komunikazio matematikoari. Ekonomia,


Batziler orokorra etapa amaitzean zer bide hartuko duten erabaki ez duten ikasleentzat pentsatuta dago

Ekintzailtza eta Enpresa Jarduera, ordea, ekonomia- eta enpresa-ikasketetarako hurbilketa bat izango da, ikuspegi zabal batekin eta diziplinarreko asmo batekin. Ekonomiaren funtzionamenduari, ekintzaileen ezaugarriei, erronkei, antolaketa-motei eta enpresen berrikuntzei buruzko oinarritzko jakintza batzuk hurbilduko dizkie ikasleei.

Bigarren mailako irakasgaiei dagokionean Zientzia Orokorrak irakasgaia nahitaezkoa izango da bigarren mailan, ikasleei oinarritzko prestakuntza emateko funtsezko lau diziplina zientifikoetan: fisika, kimika, biologia eta geologia. Irakasgaia bokazio zientifikoak eta prestatzaile zientifiko bokatuzkoak sustatzeko pentsatuta dago (adibidez, irakasleak), eta ikasleak baieztapen sasizientifiko eta engainagarrien aurrean prebenitzeko.

Azkenik, Kultura eta Arte-mugimenduak ikasleen alfabetatze kultural, artistiko eta estetiko berrak nahi du ikasgai honek, bai eta kode, teknika eta diskurtso desberdinak ezagutarazi. Klaseek eremu zabala hartuko dute: ingurumen-artetik arkitektura garaikidera, body art-etik diseinu industrialera, eta telesailen eta bideojokoen leherketatik kultur lehiaketa handietara, jatorrizko, ekialdeko, kolonurreko eta Afrikako artearen nozioetatik igaroz. XX. mendearen bigarren erdialdetik gaur egunera arteko aldiari jarriko da arreta, batez ere.

Zaraobe



LANBIDE HEZIKETA



IZEN EMATEA maiatzean

- Eredua elkarrekin goi mailako zikloan
- Metodologia aktiboak, arronketan oinarrituta
- Prestakuntza DUALA ziklo industrialean
- Erasmus programa

OINARRIZKO LANBIDE HEZIKETA




ZURGINTZA

ERDI MAILAKO ZIKLOAK

MANTENTZE - LAN
ELEKTROMEKANIKOAMENDEKOTASUN
EGOERAN DAUDEN
PERTSONEN ARRETA

MEKANIZAZIOA

GOI MAILAKO ZIKLOAK

MEKATRONIKA
INDUSTRIALAGIZARTE
INTEGRAZIOA
*Bakarrak ofortatzen dira


BATXILERGOA

AURREMATRIKULAZIOA ETA ONARPEN FASEA Martxoaren 28tik apirilaren 8ra

- 3 ereduak
- Banakako orientazio akademiko profesionala
- Informazio eta komunikazio teknologiak edoera
- Goi mailako emaitzak

GIZA ETA GIZARTE
ZIENTZIAK

ZIENTZIAK



OROKORRA

Etxebarriz kalea, 6 01470 Amurrio, Araba
945 39 30 00 // zaraobe@zaraobe.net

www.zaraobe.net



@zaraobeinsti

Laudio Ikastola

“Ikastolak tresnak eskaini dizkigu ikasketen gaineko erabakia gure kabuz hartu ahal izateko”

LAUDIOKO XABIER GOMEZ ETA MADDI SAUTUA ETA AMURRIOKO ZAINABU SOUEID AHMED ETA JOSU GONZALEZ LAUDIO IKASTOLAKO BATXILERGOKO 2. MAILAKO IKASLEEK UNIBERTSITATEAN JARRAITUKO DUTE, DATORREN URTEAN, IKASKETEKIN AURRERA. IKASTOLAK ORIENTAZIO PROZESUAN NOLA LAGUNDU DIEN AZALDU DUTE.

Batxilergo 2. mailako ikasleak zarete, pentsatu duzue Laudio Ikastola uzterakoan zer ikasi?

Xabier: Nik ez daukat oso argi; badakit unibertsitatera joan nahi dudala, argi daukat, baina ez dakit zer ikasi. Gizarte zientzien alorretik joanda ziurrenik enpresa mundua edo publizitatearekin erlazioz atutako zerbait izango da.

Maddi: Nik ere ez dakit zehazki zer ikasi, baina hezkuntzarekin erlazioz atutako zerbait izango da.

Zainabu: Nik ekonomiarekin zerikusia duen zerbait ikasi nahi dut unibertsitatean.

Josu: Nik argi daukat arkitektura ikasi nahi dudala Donostian.

Erabaki garrantzitsua da orain hartu beharrekoa, nola lagundu dizue Laudio Ikastolak?

Xabier: Ikastolak baliabide desberdinak jarri dizkigu eskura, eta hainbat ekintza egin ditugu erabakia bideratzeko. Txangoak egin ditugu zenbait unibertsitatetara, aukera akademiko desberdinen azoka egin genuen...

Maddi: Ni batxilergoko lehenengo mailan guztiz galduta nengoen, ez nekien nondik bideratu ikasketak, ikastolak jarritako erraztasunei esker argiago daukat orain.

Zainabu: Iaz test bat egin genuen gogoko genuenaren eta ondo egiten genekiena neurtu, eta zalantza posibleak alboratzeko. Nire kasuan, bi aukeren artean nengoen dudak eta asko lagundu ninduen dinamika horrek.

Josu: Nik txikitatik jakin izan dut zer nahi nuen ikasi. Egia da urte hauetan zalantzak sortu zaizkidala, baina

hauek argitzen lagundu dit Ikastolak.

Xabier: Ikastolak, funtsean, tresnak eskaini dizkigu erabakia gure kabuz hartu ahal izateko.

Maddi: Inorkezu erabakiagugatik hartuko, baina Ikastolak irtenbide guztiak erakutsi dizkigu: Euskal Herriko Unibertsitateko eskaintza, unibertsitate pribatu eta graduak, lanbide heziketako goi-mailako zikloak...

Ikastolako ikasle ohiekin elkartu zarete ere. Nolakoa izan da esperientzia?

Xabier: Profil desberdineko ikasle ohiak etorri ziren, eta gure interesen arabera beraiekin elkartu eta solasteko aukera izan genuen.

Zainabu: Oso aberasgarria izan zen, gertutasun handia transmititu ziguten. Ikasketetan nola antolatzen



ziren azaldu ziguten, baita aukera bakoitzak zituen alde onak zein txarrak ere.

Josu: Oso positiboa izan zen. Ez zizkiguten euren ikasketak saldu, baizik eta bizitako esperientzia pertsonala azaldu. Oso lagungarria izan zen.

Aldaketa handi baten atarian zaudete, zer uste izango botako duzuela faltan Ikastolatik?

Maddi: Batxilergoagorrazatenari

da, baina egundoko ikasketen prozesua da aldi berean. Talde sendoa osatu dugu etairakasleekin harremana ere oso ona da. Ikasketez gain, gainera, bestelako gauza asko ikasi ditugu hemen. Nik adibidez monitoretza titulua ateratu dut hemen. Ikastolak bizitza akademikoa eta soziala uztartzeko aukera eskaini digu urte guzti hauetan.

Xabier: Bizitza osoa daramagu Ikastolan ikasten, hurbiltasun hori galduko dugu unibertsitatean ezinbestean.

**BA
TXI
LER
GOA**

**IKASTOLAN
MATRIKULA
ZABALIK**

APIRILAK 8 ARTE

Informazio gehiago jasotzeko:
94 672 67 37
matrikula@audioikastola.eus

ingo aldi... euskara bat... baten beharra alda...

eg... u bai...

LAUDIO
ikastola
50 urte

Hezkuntza Aiarraldean



Hasi du bere ibilbidea Amurrioko Hezkuntza Publikoaren Sareak

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Otsailaren 25ean asanblada burutu zuten Zabaleko Bizirik plataformako kideek, eragilearen etorkizunaz hausnartzeko helburuarekin. Plataformaren nortasun eraldaketa egitea ebatzi zuten bertan. Gauzak hala, Amurrioko Hezkuntza Sareabezala jardungo dute aurrerantzean. Adierazi dute plataforma Zabaleko Eskolaren defentsarekin lotu izan dela eskusiboki askotan, "bere helburu bakarra hori ez izan arren". Hori dela eta, antolaketa eredu berri honekin, "Amurrioko sare publikoko zentro guztietako eragileei eta erabiltzaileei ahotza ematea" dute helburu.

Halaber, ohartarazi dute San Jose auzoko Zabaleko Eskola

Zabaleko Bizirik! plataformaren lekukoa hartuko du sortu berri den sareak aurrerantzean

ixteko mehatxuak "inoiz baino biziago" jarraitzen duela. Izan ere, plataformako kideen hitzetan, hezkuntza-lege berria sinatzeko akordioak arrisku hori areagotzen du: "Proiektu berriak hezkuntza-zerbitzuen pribatizazio-prozesua legitimatu nahi du, ikastetxe pribatuei baliabide publikoak esleituz, eta hori guztia itunpeko hezkuntzaren ereduaz ezkutatuta".

Eskola publikoaren defentsa

Amurrioko Hezkuntza Saretik egingo dute eskola publikoaren defentsa aurrerantzean Zabaleko Bizirik Plataformako kideek. Horretarako, Eskola Publikoaz Harro topagunearekin jarri dira harremanetan, eta elkarlana abiatuko dute.

Aintzinako Andra Maria

Urduñan errotutako, hezkuntza inklusiboa, hurbila, irekia eta kalitatezkoa eskaintzen du Aintzinako Andra Maria ikastetxeak

Aintzinako Andra Maria ikastetxeak, ikasleekin egungo errealitatea eraldatzeko gaitasunak garatzen ditu, balioak landuz eta garapen integrala bultzatuz. Aurten ere eskualdean ikastetxearen presentzia eta eragina sendotzen jarraituko dute, eta, bide horretan erronka berri bati heldu diote: informatikako goi-mailako ziklo berria eskainiko dute. garai berrien beharrei

erantzuteko formakuntza egokia eskainiz.

Ikasleak gizartearen beharretarako modu irekian eta euskaldunean prestatzen dituzte Urduñako zentroan; lankidetzak eta proiektuak lana sustatuz, estrategia ekintzaileak eta talde-lana garatzeko. Bertako ikasleriak modu aktibo, kritiko eta erabatekoan parte hartzen dute bere prestakuntza-prozesuan.

Teknologia berrien apustua eginez, geroz eta baliabide gehiago erabiltzen dituzte. Gainera, teknologia berriei dagokienez, gaitasun digitalaren garapen arduratsuen alde lan egiten dute, erabilera arduratsu hori metodologian sartuz eta zentroko aparatuen erabilera arautuz.

Ikasleekin eta euren familiarekin atxikipen pertsonalizatuari ematen diote lehentasuna

Urduñako Aintzinako Andra Maria, eta tutoretza eta orientazio planetan, pentsamendu kritikoaren, autoezagutzaren eta garapen pertsonal eta akademikoaren bidez lan egiten dute nagusiki.

Gizarte-izaerako kanpaina eta proiektuetan inplikatzeko dira ere Aintzinako Andra Maria ikasle eta irakasleak, eta ikasleengan ekintza solidarioak

eta boluntariotzakoak sustatzen dituzte, "sentikorrak izaten ikas dezaten eta gizartearen eta egoera ahulenean dauden beharrek inplika ditzaten".

Hainbat proiektu eta jardura osagarriren bidez, ikaskuntzarako eta etengabeko prestakuntzarako motibazioa lantzen dute: "familiak gure eskualdearen etorkizunerako pertsonak prestatzeko prozesu horretan inplikatzeko".



INFORMAZIOA:
orientacion@colegiojosefinos.com
945 384 830

AINTZINAKO ANDRA MARIA IKASTETXEA URDUÑA

BATXILERGOA

- > ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA
- > GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK

Ikasleengandik gertu
- Metodologia digitala
- Orientazio akademikoa eta profesionala

Batxilergo informazioa:



GOI-MAILAKO HEZIKETA-ZIKLOA

> INFORMATIKA MULTIPLATAFORMA ANITZEKO APLIKAZIOEN GARAPENEAN GOI-MAILAKO TEKNIKARIA

Sareko informatika sisteman administrazioa goi-mailako teknikaria

berria

Goi-mailako heziketa informazioa:




Laudioalde



laudioalde
150 LANBIDE ESKOLA
urte · años



ikasLAN



Oinarrizko lanbide heziketa

Soldadura

Erdi mailako heziketa zikloak

Administrazio-kudeaketa

Instalazio Elektriko eta Automatikoak

Mantentze-lan Elektromekanikoa

Mekanizazioa

Soldadura eta Galdaragintza

Batxilergoa (euskaraz eta gaztelaniaz)

Zientziak

Giza eta Gizarte Zientziak

Goi mailako heziketa zikloak

Zuzendaritzari laguntza ematea


Administrazioa eta Finantzak

Sistema Elektromekanikoak eta
Automatizatuak

Automatizazio eta Robotika
Industrialak

Mekatronika Industrialak

Fabrikazio mekanikoko
Produktzioaren Programatzea



BATXILERGO AURREMATRIKULA EPEA:

Aurrematrikula presentziala: martxoaren 28tik apirilaren 8ra bitartekoa izango da.

Eskabideak on line aurkeztu ahal izango dira martxoaren 28tik aurrera

Formato digitalean ikasirik: <http://www.euskoelkaskoak.com/y-matricula/on-bachillerato/web01-a2b0ad/es/>

LANBIDE HEZIKETA AURREMATRIKULA EPEA:

Laster gure webgunean azalduko dira

Virgen del Carmen, 17 01400 LAUDIO (Araba)

Tel: 946 72 05 05 Fax: 946 72 10 57 secretaria@laudioalde.eus www.laudioalde.eus